



## Hiztegitxo

Hobeto irakurtzen laguntzeko



<b>abagune</b> egokiera, une aproposa ( <i>ocasión</i> )	Ez zen hura, baina, ikuskari zume haien alderik onena. Alderik onena zen <b>abagunerako</b> mozorroak egiten zizkiela amamak Brunori eta Greteli.	93
<b>abiaburu</b> hasiera	<b>Abiaturua</b> nahiko polita zuen.	38
<b>adeitasun</b> kortesia, jendetasuna	...erantsi zuen, zeren eta berri bitxiak eta mingarriak baziren ere, Brunok ez baitzituen zertan urratu irakatsi zizkioten <b>adeitasun</b> arauak.	14
<b>aditu</b> sumatu	...sukaldeko labean afaritarako erretzen ari ziren behikiaren usain gozoa <b>aditu</b> ahal, ordea, erabaki zuen hobe izango zela	136
<b>ahaide</b> senidea, familiakoa	...aitak, aitaitak, osabak, elkarren gisako norbanakoak eta edonoren iraganbidean bizi zirenak eta inongo <b>ahaidetik</b> ez zutela zirudienak...	44
<b>ahalik eta urrunen</b> albeit urrunen	...zeintzuengandik hobe baitzen <b>ahalik eta urrunen</b> ibiltzea, zuhurtziaz.	12
<b>aho batez</b> guztiak batera, unanimitatez	Aitak eta amak <b>aho batez</b> erabakia hartu zuten.	100
<b>aise</b> erraz	...Brunok pentsatu zuen handik <b>aise</b> begiratu ahal izango zuela kanpoaldera...	27
<b>aitaita</b> aitite, aitona	<b>Aitaita</b> harro-harro zegoen bere semea uniforme-jantzi berriarekin ikusteaz, baina amama zen hunkituta ez zirudien bakarra.	95
<b>aitzitik</b> berriz, ordea	... <b>aitzitik</b> , tentelkeriak baino ez zizkion aipatu orduan.	160
<b>aldarazi</b> aldaketa eragin	Besterik zer egin dezakegu, ba, azken batean? Ez dagokigu, guri, gauzak <b>aldaraztea</b> .	70
<b>amore eman</b> etsi, onartu	...baina, isilean <b>amore eman</b> zuen...	31
<b>andana</b> piloa, mordoa	Ostera begiak zabaldu zituenean, ez zirudien bere kabuz ibili zebilenik, baizik eta jende <b>andana</b> hark herrestan zeramala...	211
<b>anker</b> krudela, bihozgabea	...nahikoa hazi ahal izango zen berriro beren etxera itzultzen zirenerako, eta, hartara, aurrerantzean ezin izango zuten hain <b>anker</b> jokatu berarekin.	31
<b>antzeratu</b> imitatu	...amak agindu baitzion begirunez tratatu beharra zeukala Maria, eta ez <b>antzeratzeko</b> inolaz ere aita hari hitz egiteko zuen modua.	9
<b>apartsu</b> bisduna ( <i>espumoso</i> )	...batzuetan gizonetakoak eta emakumezkoak aurkitu ohi zituen haietara eserita, edari <b>apartsuak</b> edanez eta ozenki barrez...	21
<b>arakatu</b> miatu	...esparru osoa <b>arakatzen</b> , miatu eta miatu, froga argigarriren baten bila.	209
<b>arau murriztaile</b> zorrotza, aukerak mugatzekoa	...zeina uste izatekoa baita etxe zaharrean bezalako <b>arau murriztaileen</b> pean egongo zela...	20
<b>arbi</b> baratze landarea ( <i>nabo</i> )	Haietako zenbait bete-beteak, porruz eta onddoz ez ezik, <b>arbiz</b> eta muskilez gainezka zeudenak...	20
<b>arestian</b> lehentxeago, duela gutxi	Ile beltz sarria, berri, <b>arestian</b> lakaz espraieztatua zuen...	47
<b>arrangura</b> kezka	Eta joan egin zen, otzan-otzan, inolako <b>arrangurarik</b> agertu gabe; pozik ere bai, aurrerantzean berdin baitzion zer egin ziezaioketen.	216
<b>arrapaladan</b> lasterka, arineketan, ziztuan	... <b>arrapaladan</b> irtena baitzen handik sagu hil baten itxura osoa zeukan zerbait zeramala eskuan.	35
<b>artean</b> orduak, oraindik ere	...jostailuak eta liburuak <b>artean</b> kutxetatik atera gabe.	23
<b>asaldatu</b> aztoratu, urduritu	Brunok ez zuen bere inguruan nork haserrearaziko eta <b>asaldaraziko</b> .	179
<b>ataka</b> estualdi, kinka larria	...haserrekor, Mariak <b>ataka</b> gaiztoan jarri nahi izan balu bezala berariaz.	63



<b>atergabe</b> etengabe, gelditu gabe	Herr List jaunaren goizeko eskolek iraun zuten artean, <b>atergabe</b> aritu zuen. Bazkalorduan, atergabe aritu zuen.	155
<b>atontu</b> prestatu, apailatu	Nire amak <b>atontzen</b> zizkion arropa guztiak kontzerturako.	66
<b>atxiki</b> oratu, lotu, itsatsi	...baina sekula ez zen gai izan haien izenak gogoan <b>atxikitzeko</b> .	115
<b>aurki</b> laster	Zoritxarrez, denbora franko emango dugu <b>aurki</b> gerrari buruz hitz egiten.	74
<b>azaburu</b> aza-hostoen <i>mototsa</i>	Bata bestearen gainean pilatutako erretiluetan <b>azaburuak</b> , azenarioak , azaloreak eta artaburuak zituztenak salgai.	20
<b>balihoa bezala</b> joango balitz bezala	...eskuak bata bestearen kontra bihurrikatzen zituen, urduri, esan nahiko ez lukeen zerbait esatera <b>balihoa bezala</b> ...	9
<b>barrunbe</b> norberaren barrenaldea	Bazekien bere <b>barrunberik</b> zokondoenekotik gora zetorkion min hark kanpoaldera egin ziezaiokeela.	22
<b>bazter-nahasle</b> endredatzailea	...horrek esan nahi zuen beste mutikorik ere ez zela, jolaserako, ez lagun ez <b>bazter-nahasle</b> modukorik.	19
<b>bederen</b> behintzat, gutxienez	Galdetu diot ea astean behin, <b>bederen</b> , irakurri ahal izango ditugun, baina ezetz erantzun dit...	145
<b>begitarte</b> aurpegia, bisaia	... <b>begitarte</b> malenkoniatsua ageri zuen.	109
<b>behingoagatik</b> azkenean behintzat	...konturatu zen harekin bat zetorrela <b>behingoagatik</b> .	32
<b>beirateria</b> kristalezko piezen jokoa	...esan zuen amak, kutxa bat zabaltzen zuela, hantxe baitzegoen hirurogeita lau piezako <b>beirateria</b> ...	21
<b>bekaiztu</b> inbidia izan, haserretu	—Nik ez dut normalean kizkurtuta izaten ilea —esan zuen Gretelek, nebak emakumearen arreta osoa bereganatu zuelako <b>bekaiztuta</b> .	125
<b>bekozkoa ilundu</b> bekokia zimurtu	—Polonia —esan zuen Brunok, pentsakor,[...]—. Ez da Alemania bezain bikaina, ezta ba? <b>Bekozkoa</b> ilundu zuen Shmuelek.	114
<b>berariaz</b> apropos, nahita	...haserrekor, Mariak ataka gaiztoan jarri nahi izan balu bezala <b>berariaz</b> .	63
<b>bere artean egin</b> pentsatu berekiko	Amar begiratu zion Brunok une batez, txintik ere esan gabe, eta <b>bere artean egin</b> zuen ama ez zela behar bezain ongi makillatu goiz hartan...	10
<b>bere kolkorako</b> berekiko, bere kautan	Ergel hutsa dut aita —erantsi zuen <b>bere kolkorako</b> .	64
<b>bere uztako</b> berak sortua, berea	...Gretelen galderei ez erantzunarena egiteko ohitura baitzuen, eta trebea baitzen, arrebarenei erantzun ordez, <b>bere uztakoren</b> bat edo beste egiten hari.	31
<b>beren kasa</b> euren estilora	Badira zenbait gauza, hortxe egonean daudenak, <b>beren kasako</b> kontuetan bilduak, eta besteren kontuei jaramonik egin gabe, nork noiz aurkituko zain.	117
<b>berripaper</b> egunkaria, kazeta	Ez duzu sekularik <b>berripaperik</b> irakurtzen, ala? —Arren, ez deitu tentel, nebari! —esan zuen amak.	120
<b>bertatik bertara</b> berehala, hurbil-hurbil	Eta orduantxe ikusi ahal izan zuen, <b>bertatik bertara</b> , Bruno kontaktzen aritu zitzaiona.	36
<b>bide</b> antza, nonbait	...eta aitak hemen geratu behar du lanean, Fierak <b>egitismo</b> handiak bide dituelako harentzat, baina gainerako guztiok etxera itzuliko gara.	196
<b>bidezidor</b> bidexka, lasterbidea	Handik harago zegoen <b>bidezidorra</b> eta, are harago oraindik, baso bat, berak noiz nola esploratuko zain.	34
<b>bihurdikatu</b> endredatu	...eskuak bata bestearen kontra <b>bihurdikatzen</b> zituen, urduri, esan nahiko ez lukeen zerbait esatera balihoa bezala...	9
<b>bonet</b> txanoa, kapela	Brunok azken ukituak eman zizkion bere moztarroari, eta buruan jarri zuen oihalezko <b>bonet</b> marraduna.	205



<b>burrunbari</b> zaratatsua	Brunok ez zuen aitaren ahots <b>burrunbaria</b> aditu inon ere, ez eta haren bota pisuen zarata astuna ere...	47
<b>burtzoragarri</b> zorabiagarria	...eta hura berarenganaino heldu zenean bakarrik amore eman zion, zeharo eta erabat, jirabiraka zebilkion zorabio-antzeko sentipen <b>burtzoragarriari</b> .	84
<b>buru-belarri</b> eginahalean, murgilduta	Ez zen jiratu ere egin, bere gelan zegoen <b>buru-belarri</b> .	35
<b>buruargi</b> adimentsua	Oso emakume <b>buruargia</b> da.	114
<b>desenkusa</b> aitzakia, eskusa	...atsekabezko keinua egin zuen orduan Brunok, <b>desenkusa</b> eta barkamen kontuez zeharo ahaztuta.	175
<b>di-da</b> arin batean, atoan	—Kontrakoa gaituk —erantzun zion Gretelek, <b>di-da</b> , eta eman berri zion erantzunaz askoz ere kontentago—. Bai halakoxeak gaituk. Kontrakoak.	183
<b>diosal</b> agur keinua edo hitza	...hitz bi ahozkatu zituen —aitak inoiz irudikatu baino askoz ere argiago eta ozenago—, soldaduren bati <b>diosal</b> egiterakoan esan beharreko haiexek.	59
<b>doi-doi</b> zehatz-mehatz	Goizero-goizero denok elkarrekin gosaltzen genuen, zazpitan <b>doi-doi</b> , eta gero anaia eta biok eskolara joaten ginen.	129
<b>egitasmo</b> proiektua, plana	...eta aitak hemen geratu behar du lanean, Fierak <b>egitasmo</b> handiak bide dituelako harentzat, baina gainerako guztiok etxera itzuliko gara.	196
<b>egonean egon</b> bere horretan, mugitu gabe	Badira zenbait gauza, hortxe <b>egonean daudenak</b> , beren kasako kontuetan bilduak, eta besteren kontuei jaramonik egin gabe, nork noiz aurkituko zain.	117
<b>eldarnio</b> delirioa, sukar ametsa	Bazen haren begietan <b>eldarniozko</b> bat, lehenago inoiz ikusi gabekoa, eta mutikoari ondoeza eragin ziona.	70
<b>emeki-emeki</b> poliki-poliki	...eta harekin igurtzi zion <b>emeki-emeki</b> belaunburua Brunori; min-keinu bat egin zuen mutikoak...	85
<b>erdeinu</b> mespretxua, gutxiespena	—Egingo dituzu lagun gehiago —esan zuen amak, eskua airean astintzen zuela, <b>erdeinuz</b> , mutiko batentzat munduko gauzarik errazena izango balitz bezala...	15
<b>ergel hutsa</b> leloa baino leloagoa	<b>Ergel hutsa</b> dut aita —erantsi zuen bere kolkorako.	64
<b>erretilu</b> azpila, bandeja	Bata bestearen gainean pilatutako <b>erretiluetan</b> azaburuak, azenarioak, azaloreak eta artaburuak zituztenak salgai.	20
<b>errieta eman</b> agiraka egin, bronka bota	—Nahikoa da, Bruno —esan zion bat-batean, <b>errieta eman</b> orain, eta zutitu egin zen...	15
<b>errukigabe</b> krudela	...jada ez zuten gogoko, agintari <b>errukigabea</b> bihurtu baitzen.	216
<b>eskerga</b> handi-handia, neurrigabea	Berlingo etxea <b>eskerga</b> zen.	19
<b>eskuarki</b> normalean	...horrek bitxia lirudike, <b>eskuarki</b> , baina oraingo honetan Gretelek bazekien zergatik zen.	38
<b>eskudel</b> baranda	... <b>eskudelean</b> behera irristan jaisten zen, oin-puntetan jarri eta Berlin osoa ikusten zuen.	23
<b>ezbehar</b> istripua, zorigaitza	... <b>ezbehar</b> bat gertatuko zitzaizula banekien...	84
<b>ezgai halakoa</b> inutil alaena!	Norbaitek esan zion: “Utikan hemendik hautsak harrotuz, <b>ezgai halakoa!</b> ”.	33
<b>ezpaldu</b> hondatu,	...hango hura ez zen inoiz <b>ezpaltzen</b> , eta uda oro goitik behera margoarazten zuen amak...	61
<b>ezten</b> ziztada, pintxazo	...likido berde batez betea, eta harekin igurtzi zion zauria, eta haren <b>ezten</b> zorrotzak erremin-oihuak eginarazi zizkion Brunori, “ai, oi, ei” esanarazi...	85
<b>gainbegiratu</b> errebasoa	...aurreko egunetako gertakarien <b>gainbegiratu</b> azkat bat egiten zuela.	10



<b>gaiztotu zauria</b> zornatu, txarto jarri	Eta zinbulu-zanbulutik erori nintzenean berak garbitu eta sendatu zidan erabat ebakia, bere hartan <b>gaiztotu</b> ez zedin, eta lotailu batez lotu zidan zangoa.	141
<b>galant</b> potoloa, itzela	Nire ustez, hutsegite <b>galanta</b> egin du.	64
<b>gatibu</b> atxilotua	—Ezagutzen al duzu mutiko hau? —esan zuen berriro ere Kotlerrek, are ahots apalagoz—. Preso <b>gatibuekin</b> hizketan aritu al zara?	173
<b>gizabidetsu</b> errespetuz, edukazioz	Izan ere, azken egun haietan ezin <b>gizabidetsuago</b> jokatu zuen mundu guztiarekin...	10
<b>gizaseme</b> pertsonea	...datorrela lana behar bezala egingo duen <b>gizaseme</b> bat.	33
<b>gogaikarri</b> jasanezina, aspergarria, astuna	Ez zitzaion bereziki <b>gogaikarria</b> irudituko.	11
<b>goibel</b> triste, burumakur	Shmuelek oso <b>goibel</b> zirudien bere istorioa kontatzen aritu zen bitartean.	133
<b>goititu</b> igoarazi, goratu	Ezin harroago naukazu, halako erantzukizuneko kargura <b>goititu</b> zaituztelako	96
<b>grina</b> irrika, gogo bizia	Brunori besarkada bat emateko <b>grina</b> bizia sentitu zuen Shmuelek.	207
<b>gutizia</b> kapritxoa	...ñir-ñir egiten zioten begiek, pozaren pozez, bizitzan ezer gutxi baitzuen <b>gutizia</b> kutunagorik oilasko hotza, tipulaz eta salbiaz barrubetea baino.	169
<b>haraindi</b> harago	...ez zen belar izpirik hesiaz <b>haraindira</b> .	38
<b>harrezkero</b> handik aurrera, geroztik	<b>Harrezkero</b> , Brunok ez zuen askotan ikusi amama, eta hari agur esateko aukerarik ere ez zuen izan...	98
<b>hasperen</b> arnasbehera, suspiria, intzeria	Amak <b>hasperen</b> egin zuen eta airean luzatu zituen eskuak...	10
<b>hausnartu</b> gogoetatu	...gero gorantz begiratu zuen ostera, semearen erantzuna astiro <b>hausnartu</b> nahian.	52
<b>hautsak harrotuz joan</b> arrapataka, hankei arin eraginez	Norbaitek esan zion: “Utikan hemendik <b>hautsak harrotuz</b> , ezgai halakoa!”.	33
<b>hazpegi</b> aurpegiaren eitea ( <i>rasgo</i> )	Gizon txiki samarra zen, argal-argala, hezurra eta azala baino ez, eta hatz luzeak zituen, eta <b>hazpegi</b> hezurtsuak.	88
<b>haztatu</b> ukituz sentitu	—Polonia —esan zuen Brunok, pentsakor, hitz hura mihi-puntaz ondo <b>haztatuz</b> —. Ez da Alemania bezain bikaina, ezta ba?	114
<b>herrestan</b> arrastaka, narras	...ez zirudien bere kabuz zebilenik, baizik eta jende andana hark <b>herrestan</b> zeramala...	211
<b>hertsatu</b> estutu	...ukabiltzeraino <b>hertsatu</b> zituen eskuak...	64
<b>higuigarri</b> nazkagarria	Ez zitzaion hura izendatzeko modu samurragorik bururatu: <b>higuigarri</b> hutsa zen etsi-etsian.	82
<b>histua</b> asea, betea	...bazirudien gero eta txikiago bihurtzen ari zela, [...] haren masailek ere <b>histuak</b> ziruditen zeharo, ia kolore gabe bihurtzeraino.	145
<b>hitzetik hortzera</b> bat-batean, ia pentsatu gabe	...erantsi zuen, esamolde berri hura boteaz, <b>hitzetik hortzera</b> erabiltzeko erabakia hartua baitzuen.	21
<b>hitzordu</b> zita, elkartzeko ordu adostua	...nik, behintzat, <b>hitzordua</b> egina daukat antzokira...	119
<b>hizpide</b> hizketa-gaia, solasgaia	Brunori begira geratu zen Samuel, baina ez zion ezer esan, eta Brunok <b>hizpidea</b> aldatzeko irrika bizia sumatu zuen...	114
<b>horail</b> adats horikoa, rubio/a	Lehenik, afaritan izan zituzten Fiera eta harekin etorri zen emakume <b>horail</b> ederra...	94



<b>horixe</b> jakina, noski	— <b>Horixe</b> ekarri ditudala –ihardetsi zion arrebak–. Ene!	31
<b>hunkitu</b> emozionatuta, zirrara sentitu	Aitaita harro-harro zegoen bere semea uniforme-jantzi berriarekin ikusteaz, baina amama zen <b>hunkituta</b> ez zirudien bakarra.	95
<b>huntz</b> landare igokaria ( <i>hiedra</i> )	Batzuetan, arratsalde epeletan, gogoko nuen hantxe esertzea, eguzki-argitan, eta nire askaria jatea, urmael ondoko <b>huntzaren</b> gerizpean.	63
<b>hutsegite</b> ez asmatzea ( <i>fallo</i> )	Nire ustez, <b>hutsegite</b> galanta egin du.	64
<b>ihardetsi</b> erantzun, arrapostu	—Tira, Alemania delako denik eta herrialderik handiena – <b>ihardetsi</b> zion Brunok aitari...	114
<b>ile-xerlo</b> ile sorta, bereziki bekoki aurrean	Amari erakutsi zion arrautza, eta amak burua arakatu zion Greteli, <b>ile-xerlo</b> bakoitza banan-banan bereiziz eta haztatuz...	184
<b>ingurumari</b> aldamenean, ondoan	Berlingo etxearen <b>ingurumari</b> guztian baziren beste kale batzuk...	20
<b>intzirika</b> aieneka, negar mainaka	...begiak negarrez zerizkiola eta <b>intzirika</b> .	184
<b>iradoki</b> sujeritu, erdi esan	...berriro Berlinera itzul zitezela denak etorkizun hurbilean, eta ez hilabete buruan, Brunok <b>iradoki</b> zuenez.	36
<b>iraulkatu</b> buelta hartu	Amak esan zion amama hilobian <b>iraulkatuko</b> litzatekeela nork bidalia zen jakin izan balu.	178
<b>irriño</b> irribarretxoa	...halakoetan, <b>irriño</b> txoroak egitea galarazi behar izaten zion bere buruari.	73
<b>irristan</b> laban eginez	Goialdeko solairuan eskudelaren gainean jarri eta etxe osoan behera <b>irristan</b> jaistera baino, riiiiissssttt.	16
<b>isil-misilka</b> txutxu-mutxuka, ahapeka	Gretelek, <b>isil-misilka</b> , galdetu ez balio bezala.	42
<b>itsumustuan</b> ezustean, ustekabea	Hitzik esan gabe, Kotlerrek <b>itsumustuan</b> kendu zion liburua eskuetatik.	165
<b>jokatu</b> portatu	...zeren eta bere buruarekin zintzo <b>jokatzekotan</b> –eta beti saiatzen zen horrela jokatzin–, ez baitzekien erabat ziur zer lanbide zuen aitak.	12
<b>kaiku</b> zuntzuna, ergela, tentela	...atzeratzen nengoela, <b>kaiku</b> galanta nintzela...	54
<b>kareore</b> kareaz eginiko masa	Norbere etxea ez da eraikin bat, kale bat edo hiri bat, adreiluz eta <b>kareorez</b> egindako zer artifizial hutsa.	52
<b>kaskamotz</b> soildua, ilegabetua	Esku bat pausatu zuen bere buru <b>kaskamotzean</b> , eta haren lakarrak adierazi zion egun batzuetako ilea baino ez zitzaizola hazi artean.	198
<b>kaskezur</b> burezurra	...kontu hura azkenean <b>kaskezurrean</b> sartzea lortu zuelako.	183
<b>kirrinka</b> soinu bizi desatsegina	...une hartan <b>kirrinka</b> bat aditu zen kanpoaldean.	25
<b>kliskatu</b> begiak itxi-ireki	...begiak <b>kliskatu</b> zituen Brunok.	197
<b>kontu-kontari aritu</b> berriketan, hitz eta pitz	...elkarri <b>kontu kontari aritu</b> gara urtebete pasatxo inguruan.	197
<b>kosk egin</b> haginka egin	<b>Kosk egin</b> zion ezpainari Brunok. Espero zuen bere alde izango zuela Maria...	67
<b>kox-kox</b> atea jotzearen soinua	...atean <b>kox-kox</b> jo ere egin gabe.	31
<b>kuiatxo</b> kalabazina	Haietako zenbait bete-beteak, porruz eta onddoz ez ezik, arbiz eta muskilez gaitezka zeudenak; urazaz eta lekaz, <b>kuiatxo</b> z eta pastinakaz lepo...	20



<b>kutunkeria</b> gehiegizko lausengua	...erabat sinetsita baitzegoen <b>kutunkeriarik</b> gabe jokatu beharra zeukala, eta, Brunok onartu egin zion...	13
<b>kuxidade</b> desastrea	...panpinekin hizketan ari zela, alegia errieta ematen ari zitzaizela, bera kanpoan izan zen bitartean <b>kuxidade</b> halakoa sortu ziotelako...	161
<b>larrutik ordaindu</b> ongi pagatu	... <b>larrutik ordaindu</b> beharko dute...	23
<b>lausotu</b> difuminatu, ia desagertu	Apur bat baino ez zitzaion <b>lausotu</b> irribarrea aitari, eta une batez gainbegiratu bat egin zion gutunari...	52
<b>leiar</b> kristala	Gero, <b>leiarren</b> kontra bermatu aurpegia, kanpoaldera begiratu eta han zegoena ikusi zuen...	27
<b>lepo</b> bete-beterik	Haietako zenbait bete-beteak, porruz eta onddoz ez ezik, arbiz eta muskilez gainezka zeudenak; urazaz eta lekaz, kuiatxoz eta pastinakaz <b>lepo</b> ...	20
<b>lerde-jario</b> adurtia, adurrez bustia	...musu <b>lerde-jarioak</b> ere ematen baitzituzten.	51
<b>lerratu</b> irrist egin, labaindu	...uste baino arinago <b>lerratu</b> zitzaizkion hitzak ahotik.	156
<b>litekeena</b> baliteke, posible da	— <b>Litekeena</b> dun –esan zuen Brunok, bai baitzekien arreba baino gazteagoa zela...	40
<b>lokaztu</b> basaz betea	...hantxe utzi behar baitzituen Brunok ere bere oinetako <b>lokaztuak</b> kaletik etxerakoan...	46
<b>loki</b> buruaren belarri aurreko gunea	<b>Lokietatik</b> igarri zion Brunok ile horail-horaila zuela, naturala ez emateraino horikara ia.	25
<b>lotailu</b> benda, hesgailua	Eta zinbulu-zanbulutik erori nintzenean berak garbitu eta sendatu zidan erabat ebakia, bere hartan gaiztotu ez zedin, eta <b>lotailu</b> batez lotu zidan zangoa.	141
<b>lotinanta</b> tenientea	Kotler <b>lotinanta</b> urrats luzeak eginez ibiltzen zen, artean, bere bota beltzak jantzita...	99
<b>makulu</b> muleta	...beste batzuk <b>makuluekin</b> zebiltzan.	42
<b>malenkoniatsu</b> tristurazkoa, goibela (melancólic)	Mutiko hura Bruno baino txikiagoa zen, eta lurtean eserita zegoen, eta begitarte <b>malenkoniatsua</b> ageri zuen.	109
<b>mamurtu</b> murtxikatu, mastekatu	...xehe-xehe <b>mamurtu</b> baina artean irentsi gabeko opil zati bat.	14
<b>marisorgin</b> neska/emakume alua, gaiztoa	—Sei urte bakarrik dituzula, ezta ba? —tematu ohi zitzaion <b>marisorgin</b> beldurgarria...	30
<b>marrantatu</b> katarrotua	—Noiz? —galdetu zion, ahots <b>marrantatuaz</b> , eztarria urratu izan balitzaio bezala.	196
<b>miatu</b> arakatu	...zeren eta ez bazion ere etxeratu eta norbait bere gauzak <b>miatzen</b> aurkitzea.	9
<b>miazkatu</b> milikatu, txupatu	Ezpainak <b>miazkatu</b> zituen Brunok, eta gero beste aldera begiratu zuen. Nonbait, ez zitzaion burutazio ona iruditu aitaren begiradari tinko eustea.	56
<b>minberatu</b> minduta	...erabat <b>minberatuak</b> zituen besoa eta zangoa.	83
<b>mortu</b> bakartia	Etxe berria, ordea, bera bakar-bakarrik zegoen leku huts eta <b>mortu</b> batean, eta han ez zen beste etxerik ageri ikusmenean...	19
<b>motots</b> moñoa	...buruaren atzeko aldean sare-itxurako <b>motots</b> batean bildua.	9
<b>muskil</b> ernamuina ( <i>brote</i> )	Haietako zenbait bete-beteak, porruz eta onddoz ez ezik, arbiz eta <b>muskilez</b> gainezka zeudenak...	20
<b>mutiko</b> mutil gaztea	<i>Pijama marradunaz jantzitako mutikoa</i>	



<b>nahaste-borraste</b> nahaspila	...ez zuen gogoratzen inolako <b>nahaste-borrasterik</b> sortu zuenik.	10
<b>neskame</b> otseina, zerbitzaria	...harrituta geratu zen Bruno bere gelan aurkitu zuelako Maria, familiako <b>neskamea</b> .	9
<b>nonbait</b> antza, itxuraz	<b>Nonbait</b> , ez zitzaion burutazio ona iruditu aitaren begiradari tinko eustea.	56
<b>ñimiño</b> txiki-txikia	...esan zuen berriro, hitzak zipriztinka ateratzen zitzaizkiola, zehe-zehe mamurtu baina artean irentsi gabeko opil zati <b>ñiminoz</b> beteta balu bezala ahoa.	14
<b>ñir-ñir</b> diz-diz, distira	... <b>ñir-ñir</b> egiten zioten begiek, pozaren pozez, bizitzan ezer gutxi baitzuen gutizia kutunagorik oilasko hotza, tipulaz eta salbiaz barrubetea baino.	169
<b>ohore-domina</b> gerra kondekorazioa	...baina aitarena bezalako uniformea zuen soinean, nahiz eta harenak baino <b>ohore-domina</b> gutxiago izan apaingarri.	25
<b>ondoez</b> ezinegona, disgustua	Bazen haren begietan eldarniozko bat, lehenago inoiz ikusi gabekoa, eta mutikoari <b>ondoeza</b> eragin ziona.	70
<b>orban</b> mantxa	...konturatu zen hasiera bateko zera hura ez zela tita bat, ez <b>orban</b> bat, ez pinporta bat, ez eta irudi bat ere, baizik eta pertsona bat.	108
<b>ostera</b> berriro ere	<b>Ostera</b> begiak zabaldu zituenean, ez zirudien bere kabuz ibili zebilenik, baizik eta jende andana hark herrestan zeramala...	211
<b>otu</b> okurritu, bururatu	Gretelen nebari, berriz, azken burutazio bat <b>otu</b> zitzaion ehunka lagun haiei begira zegoela,...	44
<b>otzan</b> apala, umila	...agindupeko apal eta <b>otzana</b> baino ez zen arreba.	39
<b>paraturik</b> jarrita, ipinita	...sorbaldaren alde banatara orekatsu <b>paraturik</b> ageri zituen panpinak bere txirikorda urre-koloreak, haietatik nork noiz tira egingo zain.	36
<b>pinporta</b> garaua, pikorta	...konturatu zen hasiera bateko zera hura ez zela tita bat, ez orban bat, ez <b>pinporta</b> bat, ez eta irudi bat ere, baizik eta pertsona bat.	108
<b>pisu</b> handi-astuna	Brunok ez zuen aitaren ahots burrunbaria aditu inon ere, ez eta haren bota <b>pisuen</b> zarata astuna ere...	47
<b>pitzatu eta zartatu</b> arrakalaz bete	Sabaiaren margolan zuria <b>pitzatzen</b> eta <b>zartatzen</b> hasia zen, modu zeharo itxuragabea...	61
<b>purrustada</b> brastakoan, indarrean	...jarleku huts pila eta leihoak ere bazituenera, eta haiexek jaitsi ahala aire freskoa <b>purrustadan</b> sartzen zenera.	47
<b>puxtarri</b> jolasteko bolatxoa, kanika	...bestela, bost <b>puxtarri</b> gutxiago, eta ostera goitik beherakoei ekitera.	17
<b>sarkasmo</b> ironia latz mingarria	...esan zuen Gretelek, sarkasmo burlaizez, hamahiru urte bete baitzituen berriki, eta sofistikatorik sofistikatuentzat baitzeukan <b>sarkasmoa</b> —.	160
<b>sarri</b> ugaria, zarratua	Ile beltz <b>sarria</b> , berriz, arestian lakaz espraieztatua zuen...	47
<b>setatu</b> tematu, egoskortu	—Autsbiz izena din —protesta egin zion Brunok. —Ezetz, ba — <b>setatu</b> zitzaion arreba, eta esparruaren izena zuzen eta egoki ahoskatu zion nebari.	181
<b>sinesgogor</b> sinestu ezinik ( <i>incrédulo</i> )	—Ez al dut baimenik pentsatzen dudana esateko? —galdetu zion berriro, <b>sinesgogor</b> .	69
<b>so</b> begirada	...eta hormaren kontra geratzen zen, zutik, eta geldi-delgi, ez aurrera ez atzera begiratzen zuela auskalo non galdua zuelarik <b>soa</b> .	144
<b>sor eta lor</b> zur eta lur, harrituta	...halako itxura izango ote zuen zerbaitek <b>sor eta lor</b> uzten zuenean.	119
<b>soropil</b> ondo jagondako belardia ( <i>cespe</i> )	Bruno besoetan hartu eta <b>soropila</b> zeharkatu zuen Pavelek, ostera etxe alderantz eginez.	84
<b>suhartasun</b> inpetua, kemen bizia	—Zoragarri! —esan zuen Brunok, uneko <b>suhartasunak</b> gogoberoturik.	199





<b>sumatu</b> sentitu	Oinaze ohiz kanpoko bat <b>sumatu</b> zuen bere baitan.	38
<b>taxuz</b> egokiro	...hitz egokiak aukeratu eta <b>taxuz</b> ahoskatu nahiko balitu bezala, baina gero hobeto pentsatu bide zuen eta guzti-guztiak baztertu zituen.	62
<b>tematu</b> egoskortu, petral jarri	—Sei urte bakarrik dituzula, ezta ba? — <b>tematu</b> ohi zitzaien marisorgin beldurgarria...	30
<b>tentetu</b> artez jarri, zutitu	—Lagun asko al dituzu? —galdetu zion Brunok, burua alde baterantz <b>tentetuz</b> , eta erantzuna entzuteko zain-zain.	113
<b>tentu</b> zuhurtasuna, kontuz aritzea	...zeren eta bestela inolako arretarik eta <b>tenturik</b> gabe aterako baitzizkion gauza guztiak.	17
<b>tita</b> orezta, peka	Une hartantxe, ordea, <b>tita</b> -antzeko zerbait agertu zen urrunean, eta begiak txiki-txiki egin zituen zer izan zitekeen ikusteko.	107
<b>tupustean</b> kolpean, bat-batean	...mutikoa zertan zebilen ikustean, <b>tupustean</b> geratu zen.	137
<b>tutik ere ez ulertu</b> ezertxo ere ez ulertu	Harriduraz begiratu zion Brunok. <b>Ez</b> zuen <b>tutik ere ulertzen</b> .	87
<b>txilardi</b> txilar lekua ( <i>brezal</i> )	... <b>txilardi</b> mortu eta lainotsu bateko jauregi erraldoi bateko zokoren batean.	38
<b>txintik ez esan</b> isil-isilik	Amari begiratu zion Brunok une batez, <b>txintik ere esan gabe</b> , eta bere artean egin zuen ama ez zela behar bezain ongi makillatu goiz hartan...	10
<b>txirikorda</b> trentza	...panpinak bere txirikorda urre-koloreak...	36
<b>ubeldura</b> odolbilda, moratoia	...beltzune eta <b>ubeldura</b> mordoa ageri zuen aurpegian	175
<b>ukabilka</b> esku itxiaz kolpeka	...gorputzak horman islatzen zion itzalaren kontra <b>ukabilka</b> .	73
<b>ukalondo</b> ukondoa	Baina, alde paretik- esan zion nebari, <b>ukalondoaz</b> alde batera baztertzen zuela.	36
<b>ukendu</b> pomada, baltsamoa	...berak ekarri ninduen hona, eta ebakia garbitu eta sendatu zidan, eta <b>ukendu</b> berdearekin igurtzi...	139
<b>urratu</b> desegin, eten	Ez zioten hitz erdirik egin elkarri une batez, eta azkenean aitak <b>urratu</b> zuen isilunea.	51
<b>utikan</b> alde hemendik!, utzi bakean!	Norbaitek esan zion: “ <b>Utikan</b> hemendik hautsak harrotuz, ezgai halakoa!”.	33
<b>xehatu</b> zaticatu	Izan ere, Paveli buruzko kontuak kontatzen airtu zait, alegia barazkiak <b>xehatu</b> eta gerora mahaira zerbitzatzen dizkigun gizonari buruzkoak.	141
<b>xerra</b> filetea	...lagunaren alderantz makurtu eta oilasko <b>xerrak</b> eskura ematen zizkiola.	171
<b>xuxurlatu</b> ahapeka, murmurikatuz	...elkarri <b>xuxurlaka</b> baino hitz egiten ez ziotenak.	21
<b>zakar jokatu</b> moldegaizki, modu desatseginea	...bai baitzekien inoiz ez zegoela inolako arrazoirik inorekin <b>zakar jokatzeko</b> .	69
<b>zeharo</b> guztiz, erabat	...eta hura berarenganaino heldu zenean bakarrik amore eman zion, <b>zeharo</b> eta erabat, jirabiraka zebilkion zorabio-antzeko sentipen burtzoragarriari.	84
<b>zilipurdika</b> txiribuelbaka	...urratsez urrats, lurrera <b>zilipurdika</b> erortzeko arriskuari...	202
<b>zinbulu-zanbulu</b> txinboa, leria ( <i>columpio</i> )	— <b>Zinbulu-zanbulu</b> bat egin dut, eta muturrez aurrera erori naiz handik — azaldu zion amari—.	89
<b>ziplo</b> bat-batean, brausta	...gogora ekarri zuen, orobat, bizikletatik <b>ziplo</b> erori zeneko hura.	158



<b>ziztrin</b> baliogabea, ezdeusa	...Brunok sei urte <b>ziztrin</b> ditu –esan ohi zuen marisorgin beldurgarri haietako batek...	30
<b>zoko-moko</b> bazterra, txokoa	Ehunka <b>zoko-moko</b> eta zirrikitu ezkutu zituen esploratzeko.	103
<b>zuntzun</b> ergela, leloa	Berrito leihotik begiratu zuen Gretelek, eta baietz egin zion buruaz, ez baitzen hain <b>zuntzuna</b> ere arrazoi zuelakoan tematzeko...	